



DESGAITASUNA baloratzeko izapideak

DESGAITASUN MAILA BALORATZEA, AINTZATESTEA ETA EGIAZTATZEA ETA JASO DAITEZKEEN DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA

Desgaitasuna aintzatesteko beharrezkoa da desgaitasuna % 33koa edo gehiagokoa izatea.

NORI ZUZENDUA

Organo batean, aparatu batean edo sistema batean arazo iraunkorrak dituzten pertsonak faktore pertsonalez gain, eta honako baldintzak betetzen dituztenak:

- Arabako udalerrri batean erroldatuta egotea.
- Espainiar nazionalitatea izatea edo Espainian legez biziitzea.
- Desgaitasunarekin lotutako osasun txostenak (medikoak, psikologikoak) izatea.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Desgaitasun egoera baloratu edo berrikusteko hitzordua eskatzeko, jatorrizko agiri hauek aurkeztu beharko dira.

- NAN/AIZ.
- Baloratzeko beharra dakarten osasun arazoei buruzko mediku txosten (espezialistenak) eta txosten psikologiko eguneratuak.
- 002 inprimakia: eskaera.
- 012 inprimakia: datuen babesa eta haien tratamendua.
- 008 inprimakia: legezko ordezkaria edo erreferentziatzeko pertsona, beharrezkotzat joz gero (inprimaki hori aurkeztuz gero, izendatutako pertsona horri bidaliko zaizkio prozesuko jakinarazpen guztiak).
- Adingabekoentzat: Familia-liburua eta, banantze edo dibortzio kasuetan, zaintza eta jagoletza arautzen dituen hitzarmena. Familia-harreraren kasuan: ebazpen judiziala edo administratiboa.
- 009 formularioa Izatezko zaintzailerik badago, izatezko zaintzailearen NAN/AIZ, zaintza hori aitortzen duen zinpeko aitopenearekin batera.
- 054 formularioa. Parte hartzeko murrizketen baremoa. Formulario hau betetzea borondatezkoa da.
- Agiri horiez gain, aukera duzu zure osasun arazoei buruzko beste txostenak erantsi, interesa izan dezaketela uste baduzu.

Dokumentazio hori aurkeztu ezean, espedientea ezin izango da behar bezala izapidetu.
Inprimaki guztiek beteta eta sinatuta egon behar dute, eta orri honetan aurki ditzakezu.

ESKABIDEA AURKEZTEKO:

- Gasteizen biziz gero, **hitzordua eskatu behar duzu** hemen:
<https://egoitza.araba.eus/eu/-/desgaitasuna-baloratzeko-eta-diagnostikatzeko-zerbitzua-eskatzea>
- Gasteizko udalerritik kanpo biziz gero, zure udalerriko oinarriko gizarte-zerbitzura jo behar duzu.